

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Aiarako Udaleko alkateak 2024ko abuztuaren 28an emandako dekretuaren laburpena, zeinaren bidez egiten baita Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara joateko laguntzak emateko 2024. urterako deialdia

BDNS (Identif.): 782814.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/782814>).

Lehenengoa: onuradunak

Diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan Aiarako udalerrian errolatuta dauden eta oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak.

Dena den, adin txikikoen kasuan, laguntzaren eskatzailea diruz lagunduko den jardueran parte hartzen duen adin txikikoaren aita, ama edo legezko tutorea izango da.

Bigarrena: xedea

Deialdi honen xedea da Aiaran errolatuta dauden pertsonak musika eta dantzako jardueretan izena emateagatik sortutako gastuak ordaintzea, baldin eta jarduera horiek ez badira Aiarako udalerrian eskaintzen eta EAEko udaletako zentroetan eskaintzen badira.

2023ko irailetik 2024ko ekainera arte egindako jarduerak lagunduko dira diruz.

Hirugarrena: oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak alkatearen abuztuaren 28ko 492/2024 Dekretuaren bidez onetsi ziren eta ALHAOn argitaratu ziren.

Era berean, Aiarako Udalak eskaintzen ez dituen musika eta dantza jardueretara joateko laguntzak ematea arautzen duen ordenantzan daude jasota dirulaguntza horiek emateko oinarri arautzaileak. Ordenantza hori Aiarako Udalak onetsi zuen eta ALHAOn argitaratu zen, 42. zenbakian, 2020ko apirilaren 15ean.

Oinarriak eta eskaera orria Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: www.aiarako-udala.eus.

Laugarrena: zenbatekoa

Deialdia 1.000,00 euroekin dago hornituta.

Hau izango da, gehienez, dirulaguntzaren zenbatekoa: udalak edo haren mendeko erakundeak udalerrri horretan errolatutakoei aplikatzen dizkien tarifen eta onuradunari aplikatzen dizkion tarifen arteko aldearen ehuneko 100.

Bosgarrena: eskaerak aurkezteko epea

Hogeita hamar egun, oinarriak ALHAOn argitaratzen direnetik aurrera.

Seigarrena: beste datu batzuk

Eskaera eta eranskin guztiak beteta eta adierazitako agiriak aurkeztu behar dira.

Arespalditza, 2024ko abuztuaren 29a

Alkatea

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA